

Lan-poltsa

Toki Administrazioiko Idazkaritza, Idazkaritza-Kontuhartzaitza eta Kontuhartzaitza-Diruzaintza

1. ariketa, B zatia.

2015/12/19

1. KASUA (6 puntu)

Apirilaren 16an, Beasaingo udalak Kultura Arloko diru-laguntzak emateko deialdia argitaratu zuen, GAOn, norgehiagokako prozeduraren bidez. Eskabideak aurkezteko epea: hilabetekoa, aipatu deialdia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Udaleko Diru-laguntzak Emateko Ordenantza arautzaileetan, deialdiaren oinarri espezifikoetan eta eskumenak eskuordetzean emateko alkatetzaren dekretuan ezarritakoaren arabera, Kultura Arloko zinegotzi ordezkaria da ebazteko erakunde eskuduna.

Erantzun aipatu deialdiaren instrukzioa eta ebazpena egin bitartean sortuko galdera hauei (arrazoitu erantzuna kasu guztietan):

1. Maiatzaren 17an, X elkarteak eskabideak aurkezteko epea handitzea eskatzen du; horretarako, aurkeztu beharreko dokumentazioaren konplexutasuna alegatzen du. Udalak elkartearen eskaera onar dezake eta epea handitu?
2. Maiatzaren 19an, udaleko erregistro orokorrean jaso da Yk, maiatzaren 16an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean aurkeztutako eskaera. Udalak onartu behar du eskabidea? Eta alderantziz izango balitz, interesdunak aurkez dezake Beasaingo udaleko erregistroan Gipuzkoako Foru Aldundira doan eskabidea, eta baliozkoa izan?
3. Deialdian adierazi bezala, 4 hilabetekoa da emate-prozedura honetan ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea. Ezarritako epea zuzena da juridikoki? Zein eduki izan behar du Kultura Arloko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpenak?
4. Z izeneko pertsona pribatuak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu du alkatetzaren aurrean, Kultura Arloko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpenaren kontra. Zuzena da errekurtsuaren kalifikazioa? Errekurtsuaren kalifikazioa zuzena ez bada, arrazoi horregatik besterik gabe erabaki al dezake udalak ez onartzea? Errekurtsua onartzen badu, zein da ebazteko organo eskuduna?

2. KASUA (7 puntu)

X udalak 2014-2015 urteetan udalerriko errepide-zati bat egiteko obra-kontratua esleitzen du. Kontratuaren balio estimatua 10.000.000 eurokoa da, BEZik gabe.

Udalak obren kontratistaren sailkapen zehatz bat eskatzen du kaudimena egiaztatzeko administrazio-klausula berezien pleguan; sailkapen hori zuzena da eta 2013ko irailaren 1eko lizitazio-iragarkian jasotzen da.

“A” gutunazala irekitzean (enpresen gaitasun- eta kaudimen-azterketa), 2013ko urriaren 15ean, Kontratazio Mahaiak ikusten du Y enpresak ez duela aurkeztu eskatutako sailkapenaren egiaztagiria; orobat, hori zuzentzeko eskatzen zaio. Y enpresak ez du kaudimen hutsunea zuzentzen: alegatzen duenez, ez duelako eskatutako sailkapena eta kontratu hori gauzatzeko ez delako beharrezkoa sailkapenik edukitzea.. Kontratazio Mahaiak kanpoan uzten du 2013ko urriaren 21ean eta egun berean jakinarazten dio (2013ko urriaren 21a).

2013ko urriaren 25ean, Y enpresak administrazio-errekurtsua aurkezten du Kontratazio Mahaiaren egintzaren aurka: lizitaziotik kanpo uzten baitu pleguan eta lizitazio-iragarkian eskatutako sailkapena ez edukitzeagatik.

Erantzun galdera hauei arrazoiak emanez:

1. Y enpresak aurkeztutako errekurtsua jar daiteke? Zein errekurtsu izango litzateke?
2. Baldin eta aurkeztutako errekurtsua bidezkoa balitz, egin ezazu ebazpen-proposamena duen txosten juridiko bat.
3. Baldin eta aurkeztutako errekurtsua zuzena balitz eta ezetsi izan balitz, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke aurkeztutako errekurtsuaren ebazpenaren kontra?

3. KASUA (7 puntu)

XXX udalak, 2015eko otsailaren 1ean, bi diru-laguntza eman zaizkionaren komunikazioa jaso zuen (haien artean bateragarriak), zehazki, udaletxea zaharberritzeko obrak finantzatzeko; horietako bat autonomia-erkidegotik dator eta 100.000 €koa da, eta bestea foru aldunditik, obraren kostu osoaren % 60 finantzatzeko. Azken horretarako ez zegoen hasierako krediturik 2015eko ekitaldirako onartutako aurrekontuan.

Autonomia-erkidegoak emandako diru-laguntza osoa 2015eko martxoaren 1ean kobratu zen, eta XXX udalak 100.000 €ko eskubidea eta kobrantza aitortu zituen egun horretan.

Bestalde, foru-aldundiak emandako diru-laguntza kobratuko da egiaztatu eta gero obra bukatu dela; hortaz, udalak ez du aitortuko eskubidea obra-bukaerako ziurtagiria egin arte

Maiatzaren 2an, obra-kontratua esleitu zen udaletxea zaharberritzeko, 250.000 €ko zenbatekoarekin (lizitazio prezioa jaitsi gabe); eta, 2015eko abenduaren 31n, bete beharrekoak aitortu zituen 200.000 €ko zenbatekoagatik.

ESKATZEN ZAIZU:

1. Udaletxearen zaharberritze-obra 2015ean lizitatu ahal izateko beharrezkoa den aurrekontu-aldaketa eta hori onartzeko eskuduna den organoa.
2. Finantzazio-desbideratzeak kalkulatzeko 2015eko abenduaren 31ko datarekin.
3. Aurrekontuaren emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren gaineko finantzazio-desbideratzeen eraginak 2015eko ekitaldiaren kitapenean.
4. Gastu-arauan, aurrekontu-aldaketaren eraginak, eta gastuen eta diru-sarreraren egoera gauzatzea obra honen ondorioz.